

**URB-408/2017.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORREAN ALDAKETA PUNTUAL BAT SARTZEA IBARZAHARRA 01 (AB\_IB\_RM01). INDUSTRIA EREMUARI DAGOKIONEAN. ALEGAZIOAK EBAZTEA ETA BEHIN BEHINGOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko urriaren hamazazpian egindako bileran, besteak beste, erabaki hau hartu zen:

**LEHENENGOA.-** Gaitzestea EH Bildu Trapagaran udal taldeak espedientean ikusgai egoteko epean aurkeztu duen alegazioa, kontuan izanda espedientean jasota dauden txostenetan agertzen diren argudioak, zeinen kopia erabaki honen jakinarazpeni erantsiko baitzaio.

**BIGARRENA.-** Behin behingoz onartzea “Valle de Trápaga Trapagarango HAPOaren aldaketa puntuala, IBARZAHARRA 01-AI\_IB\_RM01 industria eremuari dagokiona. V.1ren behin behineko onarpena”, Gabriel Barrueco Aguirre arkitektuak eta Fulgencio Gutiérrez Solana abokatuak erredaktatua.

**HIRUGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Sailera bidaltzea Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espedientea, Valle de Trápaga-Trapagarango HAPOaren aldaketa puntuala, IBARZAHARRA 01-AI\_IB\_RM01 industria eremuari dagokiona. V.1ren behin behineko onarpena” agirian islaturiko planaren azken proposamena; ingurumen estudio estrategikoa, jendaurreko informazioaren eta kontsulten ondoriozkoa; eta agiri laburpena non sustatzaileak deskribatzen duen nola integratu diren eta egokitu diren planaren edo programaren azken proposamenean ingurumen kontuak, ingurumen azterketa estrategikoa, egindako kontsulten emaitza eta nola hartu diren horiek kontuan espedientearen analisi teknikoa egiteko eta ingurumen-adierazpen estrategikoa azaltzeko.

**LAUGARRENA.-** Transizio ekologikorako Ministerioko Kostaldean Zuzendaritza Nagusira bidaltzea Valle de Trápaga-Trapagarango HAPOaren aldaketa puntuala, IBARZAHARRA 01-AI\_IB\_RM01 industria eremuari dagokiona. V.1ren behin behineko onarpena”, Gabriel Barrueco Aguirre arkitektuak eta Fulgencio Gutiérrez Solana abokatuak erredaktatua, txostena eman dezan.

**BOSGARRENA.-** Euskadiko Lurralde Antolamendu Batzordera bidaltzea espedientea, HAPOaren aldaketaren agiria lurralde antolamendurako tresnetara eta arautegi sektorial lotesleeta doitu dagoen ala ez esateko txosten bat egin dezan.

**SEIGARRENA.-** Espedientea sustatu duen merkantilari gogoraraztea hura ezin izango dela behin betiko onartu harik eta Administrazio Hidraulikoak berariaz adierazi arte baliabide hidriko nahiko dagoela aldaketaren ondoriozko beharrianak estaltzeko.

**ZAZPIGARRENA.-** Ebazpen hau, eta bere motibaziotzat balio duten espedientean jasota dauden txostenak jakinaraztea espedientea sustatu duen merkantilari.

**ZORTZIGARRENA.-** Herritarrei jakitera ematea behin behingoz onartu den erabakia, iragarkiak jarriz udaletxeko ediktu oholean eta udalaren webgunean.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2018ko urriaren 18an.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra